- Liburuko jolasean aritu, dagoen zenbakiak markatzen duten galderak eginez.
- Prezioen zerrendari begiratuz, kontuak egin.
- Supermerkatuetatik etxera bidalitako esakaintzen propaganda lortu eta gelara eraman. Ondoren, zenbait gauza aukeratu eta kontuak egin.
- "Santo Tomas azoka" ri buruzko testua irakurri eta galderei erantzun.
- Abestia irakurri eta kantatu.
- Asmakizunak irakurri eta erantzuna marraztu ulertzen dutenaren arabera.
- Taldeka, azoka edo supermerkatu batean egingo den inkesta prestatu, prezioei buruz, jeneroen jatorriari buruzko galderak eginez.

#### JARRERAZKOAK

- Euskal Herriko azokak ezagutzeko nahiz piztea.
- Kontsumo hezkuntzak duen garrantziaz jabetzea eta gogoeta egitea.
- Euskara ezagutzeko eta erabiltzeko jarrera positiboa erakustea.
- Besteekin hitz egiterakoan, errespetuzko jarrera erakustea.
- Irakurketa informazio iturri ezin hobe gisa baloratzea.
- Testu idatzietan arai morfosintaktikoak eta ortografikoak errespetatzea eta baloratzea.

### 3. 5. EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Erosketei buruzko lexikoa ezagutzen du, konkretuki, azokako produktuak zein diren eta nola esaten diren euskaraz badaki.

- Prezioari buruzko informazioa eskatzen badaki.
- Helburuzko perpausak sortzeko menderagailuak ezagutzen ditu.
- *Norentzat* deklinabide kasua erabiltzen badaki.
- Superlatiboaren egitura ezagutzen du eta zuzen erabiltzen du.
- *Behar, nahi eta behar* aditzak bereizten ditu eta egoera komunikatiboetan erabiltzen ditu.

## **12. UNITATEA**

### 3. 1. IZENBURUA: **Gontzalen ameskaitza**

### 3. 2. TENPORALIZAZIOA

Oso zaila izaten da liburuko unitate guztiak lantzea, hortaz, 11. eta 12. unitateentzako ez dugu denborarik utzi. Taldearen lan egiteko erritmoa oso azkarra izatea eman daiteke, eta halako kasu batean, posible izan liteke liburu guztia bukatzea. Hala balitz, azken bi unitate hauek ere landuko genituzke.

### 3. 3. HELBURUAK

- Bidaiak eta oporrekin lotutako hiztegia eta esamoldeak lantzea.
- Kexa azaltzeko esamoldeak eta egiturak ikastea.
- Asmoez galdetzea eta berauen berri emateko gai izatea.
- Proposamenak egiten jakitea.
- Satisfakzioa adierazteko erabiltzen diren esamoldeak lantzea.
- Aurreko unitateetan ikasitako egitura gramatikalak bispasatzea eta finkatzea.
- Aditzaren geroaldia berrikustea.
- Eskutitzaren ezaugarri orokorrak lantzea.
- "Ingurunearen hezkuntza" zehar lerroa lantzea.
- Oporrei buruzko hormirudiak egiteko gai izatea.

### 3. 4. EDUKIAK

#### KONTZEPTUZKOAK

Hiztegia	-Bidaiak eta oporrak.
Hizkuntza funtzioak	-Kexa azaltzea. Asmoez galdetzea. Proposamenak egitea. Satisfakzioa adieraztea.
Gramatika	-Noiz? Nora? Nola? Zenbat? Aditzaren geroaldia.
Zehar lerroak	-Ingurunearen hezkuntza.
Proiektua	-Oporrei buruzko hormirudia .

#### PROZEDURAZKOAK

- Komikiaren azterketa egitea eta aurreko egituren berrikusketa.
- Komikiko globoak eta testuak lotu.
- Elkarrizketa buruz ikastea eta antzeztea.
- Inkestatxo bat egitea hiru ikaskideri eta erantzunak idaztea.

- Bidaia txartelak erreferentziatzen hartuz, emandako taula osatu.
- Ikasle bakoitza nola eta nora joaten den oporretan idatzi.
- Gelako egutegia erabiliz, denborazko kontzeptuak ikasi.
- Testua irakurri ondoren, elkarrizketa osatu.
- Irudiko jantziak nola dauden idatzi.
- Eskutitza irakurri ondoren, erantzuna idatzi ume bakoitzak esaldi bana eginez.
- Animaliei buruzko letra salda egin.
- Txistea eta asmakizuna irakurri.
- Foru Aldundira, Udaletxera edota Turismo bulegora joan oporrei buruzko informazio bila. Ondoren, informazioa eta argazkiak aztertu eta hormirudi bat egin.

#### JARRERAZKOAK

- Gure ingurunearekiko errespetua eta ezagutzeko nahia azaltzea.
- Euskal Herriko paisaien edertasuna baloratzea.
- Bidaiak egiteko garrantzia baloratzea, gure ezagupen maila aberasteko.
- Eguneroko esamoldeak erabiltzea.
- Ahozko eta idatziko mezu errazak ulertzea.
- Hizkuntza harremanetan parte hartzea.

#### 3. 5. EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Bidaiak eta oporrek lotutako hiztegia eta esamoldeak ezagutzen ditu.
- Kexa azaltzeko esamoldeak eta egiturak erabiltzen badaki.
- Asmoez galdetzen badaki.
- Proposamenak egiteko esamoldeak eta egiturak ezagutzen ditu eta zuzen erabiltzen ditu.
- Aditzaren geroaldia zuzen erabiltzen du.
- Badaki zein diren eskutitza egiteko urratsik garrantzitsuenak.

### 6º de Primaria

#### 1. UNITATEA: LAGUN BERRIA

**TENPORALIZAZIOA:** Irailaren 15etik urriaren 10era.

#### HELBURUAK

- Irakurmena eta idazmena lantzea.
- Deskribapenen inguruko hiztegia lantzea.
- Janariei buruzko hiztegia lantzea.
- Pertsonen deskribapenak egiteko erabiltzen diren adjektiborik erabilienak ulertzea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntza funtzioak erabiltzea:
- Aurkezpenak egin.
- Jendea deskribatu.
- Ahozko eta idatziko mezu errazak ulertzea.
- Aurreko ikasturteko egitura gramatikalak gogora ekartzea.
- *Izan* aditzaren birpasa era atseginean egitea.
- *Nor* eta *Nolakoa* lantzea eta baieztako eta ezeztako esaldiak erabiliz, deskribapenakegitea.
- *Nongoa* deklinabide kasuak ulertzea eta zuzen erabiltzea.
- "Hezkuntza morala eta zibikoa" zehar lerroa lantzea.
- Jolasaren arauak ulertzea eta jolastea.

- Kanta buruz ikastea.

## EDUKIAK

### KONTZEPTUZKOAK

Hiztegia	-Pertsonak deskribatzeko izenondoak. -Janariak
Hizkuntza funtzioak	-Nork bere burua eta besteak aurkeztu. -Aurkezpenak egin.
Gramatika	<b>-Aditz-formak:</b> Izan aditza orainaldian. <b>-Egiturak:</b> Nor? / Nolakoa? galdetzaileak. Nongoa?
Zehar lerroak	Hezkuntza morala eta zibikoa.
Irakurmena	-Komikia: Lagun berria. -Elkarrizketa. Lagunak mendian. -Inkesta: Lagun ona zara? -Gonbidapena: Lagunen jaia. -Kanta: "Lehenengo ikasgaia"
Jolasa	-Auzoko hizkuntzak

### PROZEDURAZKOAK

- Komikiaren azterketa eta aurreko egituren berrikusketa.
- Komikia antzeztu.
- Komikian agertzen diren pertsonaien aurkezpenetan oinarrituz, ikasleek beren buruak eta ikaskideen aurkezpenak egin.
- Ahozkatzeko zailak diren komikiko hitzak edo esamoldeak nabarmentzea.
- Pertsonaia guztien aurkezpenak irakurri ondoren, erantzun zuzena aurkitu.
- Lagun onari buruzko inkesta betetzea, hiru erantzunen artean bat aukeratuz.
- Mendizaleen herrien izenei begiratuz, galderei erantzun Nongo *deklinabide* kasuaren bitartez.
- Ohar bat egin, bakoitzaren datu pertsonalekin.
- Bost pertsonaien datuak irakurri ondoren, bat aukeratu eta elkarrizketatzailearen papera egin.
- Ikasle bakoitzak bere agenda osatu, datuak idatziz emanez.
- Aurkezpenak egiteko eredu osatu, ikasle bakoitzak bere fitxa egin dezan.
- Gonbidapenaren irakurketa.
- Bi ume bikien arteko ezberdintasunak bilatu.
- Deskribapenezko adjektiboak erabiliz, ikasle bakoitzak bere erretratua osatu.
- Bi pertsonaia ospetsuen datuak irakurri.
- Urkoren kanta ezaguna, "Ni naiz", entzun eta kantatu.
- Hizkuntzen mapa egin.

### JARRERAZKOAK

- Besteen itxura onartzea, errespetuzko jarrera adieraziz.
- Norberaren erantzukizunak baloratzea eta horiek betetzeko jarrera baikorra piztea.

- Eztataidetan besteek emandako iritziekiko errespetua eta interesa.
- Eginkizun zehatzak egin ahal izateko, ahozko hizkuntzaren balorazioa.
- Hizkuntzarekiko jarrera positiboa bultzatzea.
- Hizkuntza bat baino gehiago jakitearen garrantziaz konturatzea.

### **EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK**

- Irakurmena eta idazmena landu du eta testuen esanahia ulertzen du.
- Deskribapenen inguruko hiztegia ezagutzen du.
- Janariei buruzko hiztegia ere ezagutzen du.
- Pertsonen deskribapenak egiteko erabiltzen diren adjektiborik erabilienak ezagutzen eta erabiltzen ditu.
- Eguneroko beharretan hizkuntza funtzioak erabiltzen ditu aurkezpenak egiteko eta jendea deskribatzeko.
- Aurreko ikasturteko egitura gramatikalak erabiltzen ditu.
- Nor eta Nolakoa deklinabide kasuak menperatzen ditu eta deskribapenak egiteko erabiltzen ditu.
- Nongoa deklinabide kasua ulertzen du eta zuzen erabiltzen du.
- Kantatzeko ahalegina egin du.
- Liburuko ariketa guztiak burutu ditu.

### **2 UNITATEA: KORRIKA BIZIAN**

**TENPORALIZAZIOA:** urriaren 13tik 31ra.

#### **HELBURUAK**

- Kirolei buruzko lexikoa ikastea.
- Komikiaren elkarrizketa irakurtzea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntza funtzioak erabiltzea:
  - Proposamenak egin.
  - Egoerak eta posizioak azaldu.
- Aditzaren geroaldiaren bidez proposamenak egiten jakitea.
- *Egon* aditza orainaldian lantzea.
- *Non* kasuaren posposizioak lantzea.
- Lekuzko adberbioak lantzea.
- *Non, Norekin eta Nola* galderak ulertzea.
- Egoerak adierazteko adberbioak ezagutzea eta zuzen erabiltzea.
- Jolasaren bitartez, unitatean zehar ikusitako egiturak berrikustea eta finkatzea.
- Kanta ikastea eta kantatzea.
- Onomatopeiak eta bertsoak ezagutzera ematea.
- "Osasun hezkuntza" zehar lerroa lantzea.

### **EDUKIAK**

#### **KONTZEPTUZKOAK**

Hiztegia	-Kirolak. -Zerbaki kardinal eta ordinalak. -Pertsonen gorputz atalak
Hizkuntza funtzioak	-Proposamenak egin. -Egoerak eta posizioak azaldu.

Gramatika	- <b>Aditz-formak:</b> Egon aditza. - <b>Egiturak:</b> Non? / Nola? / Norekin?
Zehar lerroak	Osasun hezkuntza.
Irakurmena	-Komikia: Korrika bizian -Egunerokoa: Misterioa aldagelan. -Asmakizuna: Nor da nor? -Kanta: "Kirolaren soinua"
Jolasa	-Mendiko lasterketa

#### PROZEDURAZKOAK

- Komikia irakurri aurretik, txirrindularitzari buruzko hainbat galdera egin.
- Komikia irakurtzea.
- Komikiari buruzko galderak egin.
- Komikia antzeztu.
- Irudiei begiratu, galderei erantzun.
- Zortziko txikian eginiko bertsoa irakurri eta onomatopeiak landu.
- Pertsonaien eskuak nola dauden kontuan hartuz, susmagarriak asmatu.
- Nola eta nolako galderei erantzun, irudian agertzen diren botei begiratu.
- Ereduari jarraituz, agenda osatu eta hurrengo egunerako beren agenda egiteko eskatu.
- Planak egiten ikasteko, galderaren, baiezko erantzunaren eta ezezko erantzunaren ereduak irakurri eta parekoak egin.
- Potoloren txistea irakurri.
- Nahastuta jarrita dauden kirolarien datuekin, koadroak osatu.
- "Kirolaren soinua" kanta buruz ikastea eta kantatzea.
- Antzarraren jokoaren antzeko jolasean, "Mendiko lasterketa", jolastu.

#### JARRERAZKOAK

- Hizkuntza maila garatzeko interesa, lexikoa eta egitura berriak barneratu.
- Osasun hezkuntzak duen garrantziaz jabetzea eta gaiari buruzko gogoeta egitea.
- Kirolari buruzko iritzi kritikoa eragitea.
- Euskara erabiltzeko jarrera positiboa erakustea.
- Eguneroko ariketen txukuntasuna.
- Komunikazio arauen balorazioa eta begiramena.
- Kantarekiko interesa piztea, aberastasun eta atsegin pertsonalerako iturri den heinean.

#### EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Kirolei buruzko lexikoa ezagutzen du.
- Komikiaren elkarrizketa irakurri du eta esanahia ulertzen du.
- Eguneroko beharretan hizkuntza funtzioak erabiltzen ditu proposamenak egiteko eta egoerak edo posizioak azaltzeko.
- Aditzaren geroaldiaren bidez proposamenak egiten badaki.
- Egon aditza orainaldian erabiltzen du.

- Non kasuaren posposizioak ezagutzenditu eta egoera komunikatiboetan erabiltzen ditu.
- Lekuzko adberbioak ezagutzen ditu eta badaki nola erabili.
- *Non, Norekin eta Nola* galderak ulertzen ditu.
- Egoerak adierazteko adberbioak ezagutzen ditu eta zuzen erabiltzen ditu.
- Onomatopeiak eta bertsoak ezagutzen ditu.
- Jolasean parte eraginkorra izandu.

### 3. UNITATEA: TXIN-TXIN, ON EGIN

**TENPORALIZAZIOA:** azaroaren 3tik 21era.

#### HELBURUAK

- Janariei buruzko hiztegia ikastea.
- Irakurmena, ulermena eta idazmena lantzea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntza funtzioak erabiltzea:
  - Gustuak adierazi.
  - Orientabideak eman.
  - Prozesuak azaldu.
- *Joan* aditz trinkoa ezagutzea eta zuzen erabiltzea.
- *Nahiago izan* aditza lantzea.
- *Norentzat* deklinabide kasua lantzea.
- *Nora eta Zertara* lantzea.
- *Zertarako* helburuzko egitura ezagutzea.
- *Zerezkoa* galdera lantzea.
- "Osasun hezkuntza" zehar lerroa lantzea.
- Kanta buruz ikastea.

#### EDUKIAK

##### KONTZEPTUZKOAK

Hiztegia	-Janariak -Mahai tresnak: sardeska, goilare... -Janorduak: bazkaldu, gosald...
Hizkuntza funtzioak	-Gustuak adierazi. -Orientabideak eman. -Prozesuak azaldu.
Gramatika	<b>-Egiturak:</b> nora? / zertara? / norentzat? <b>-Aditz-formak:</b> Joan aditza Nahiago izan.
Zehar lerroak	Osasun hezkuntza
Irakurmena	-Komikia: Txin-txin, on egin. -Errezeta: Tortila. -Azalpena: Nolako gosea! -Kanta. "Donostiako hiru damatxo"
Jolasa	-Janarien collagea.

##### PROZEDURAZKOAK

- Komikiaren azterketa eta aurreko egituren berrikusketa.
- Komikia irakurri aurretik, janariak eta gustoei buruzko galderak egin.

- Komikia ulertu eta gero, antzeztu.
- Irudiko mahai gainean dauden objektuak eskuineko zerrendan markatu.
- Irudiko familiakoek jateko eskatu dutena kontuan hartuz, galderei erantzun *norentzat* erabiliz.
- Txuri txakurrari dagokion testu txikia irakurri ondoren, eskuineko esaldiak osatu, bere gustuak adierazteko.
- Bi janariren aurrean, zein nahiago den esatea.
- Irudiko tresnek zertarako balio duten idatzi.
- Potolo, pertsonaia barregarriaren istorioa irakurri.
- Patata tortila egiteko beharrezko osagaiak eta aditzak aukeratu, errezeta osatu arte.
- Herriko planoaz aztertu, joan aditza eta nora deklinabide kasua erabiliz.
- Emandako gauza batzuk erostera nora joan behar den esatea.
- Termitei buruzko testua irakurri.
- Hieroglifikoan dauden hitzak eta irudiak lotuz, erantzun zuzena asmatu.
- "Donostiako hiru damatxo" kanta herrikoia abestu.
- Janarien argazkiak ebaki eta collage bat egin.

#### JARRERAZKOAK

- Jolas-giroko ekintzetan euskaraz ongi moldatzea.
- Janari orekatu baten garrantzia baloratzea.
- Gure osasuna zaintzeko beharraz ohartzea.
- Euskaraz irakurketa errazak egiteko interesa piztea.
- Testu idatzietan arau morfosintaktikoak eta ortografikoak baloratzea.
- Euskal kantuak eta kultura era atseginean ezagutzera ematea.

#### EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Janariei buruzko hiztegia ikasi du eta erabiltzen du.
- Irakurmena, ulermena eta idazmena landu du eta testuen esanahia ulertzen du.
- Eguneroko beharretan hizkuntza funtzioak erabiltzen ditu gustuak adierazteko, orientabideak emateko eta prozesuak azaltzeko.
- *Joan* aditz trinkoa ezagutzen du eta zuzen erabiltzen du.
- *Nahiago izan* aditza erabiltzen du.
- *Norentzat* deklinabide kasua zuzen erabiltzeko gai da.
- *Nora eta Zertara* egitura erabiltzen badaki.
- *Zertarako* helburuzko egitura ezagutzen du.
- *Zerezkoa* galdera zuzen erabiltzen du.
- Kantatzeko ahalegina egindu.

#### 4. UNITATEA: EKAITZA DATOR!

**TENPORALIZAZIOA:** azaroaren 24tik abenduaren 19ra.

#### HELBURUAK

- Eguraldiarekin lotutako lexikoa lantzea.
- Jantzien inguruko hiztegia ezagutzea eta erabiltzea.
- Komikiaren egiturak eta lexikoa ulertzea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntza funtzioak erabiltzea:
- Konparaketak egin.

- Deskribapenak egin.
- *Etorri* aditz trinkoa ezagutzea eta zuzen erabiltzea.
- *Nondik* deklinabide kasua ulertzea.
- *Zerezko* egitura lantzea.
- Jolasaren bidez, unitatean ikusitako egiturak berrikustea eta finkatzea.
- "Ingurugiroaren hezkuntza" eta "Kontsumo hezkuntza" zehar lerroak lantzea.

## EDUKIAK

### KONTZEPTUZKOAK

Hiztegia	-Eguraldia. -Jantziak. -Koloreak.
Hizkuntza funtzioak	-Konparaketak egin. -Deskribapenak egin.
Gramatika	- <b>Aditz-formak:</b> Etorri aditz trinkoa. - <b>Egiturak:</b> nondik? / zerezkoa? / nor? / nork? Baino...ago
Zehar lerroak	Ingurugiroaren hezkuntza./ Kontsumo hezkuntza
Irakurmena	-Komikia: Ekaitza dator! -Egunerokoa: Kapitainaren agenda. -Elkarrizketa: Tximino, Tximina eta Tximinotxu. -Kanta: "Kanta-kantari".
Jolasa	-Espioi onak zarete?

### PROZEDURAZKOAK

- Komikiaren irakurketa eta antzezpena.
- Komikiaren antzekoaren beste abentura bat asmatu. Horretarako, marrazkiak egin eta komiki moduan aurkeztu.
- Emandako hiru pertsonaiak deskribatzea.
- Eguraldia kontuan izanik, mapako nazioetara joateko behar den arropa egokia aukeratu.
- Jantzi desberdinak konparatu.
- Elkarrizketa irakurri eta galderetan azaltzen diren hutsuneetan aditzak jarri.
- "Ilargiaren soinekoa" testua irakurri, marrazkiei begiratu.
- Pertsonaia xelebrearen txistea irakurri.
- Nemesio Etxanizek eginiko abestia, "Kanta-kantari", irakurri.
- "Espioi onak zarete?" jolasean aritu.

### JARRERAZKOAK

- Naturan eguraldiak daukan garrantziaz ohartzea.
- Kontsumo hezkuntzak duen garrantziaz jabetzea eta gaiari buruzko gogoeta egitea.
- Besteen itxuraren eta janzteko eraren aurrean errespetuzko jarrera azaltzea.
- Eginkizun zehatzak egin ahal izateko, ahozko hizkuntzaren balorazioa.
- Jolas-giroko ekintzetan ongi moldatzea.
- Idazteko zaletasuna garatzea.
- Euskara erabiltzeko jarrera positiboa erakustea.

## EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Eguraldiarekin lotutako lexikoa ezagutzen du.
- Jantzien inguruko hiztegia ere ezagutzen du eta egoera komunikatiboetan zuzen erabiltzen du.
- Komikiaren egiturak eta lexikoa ulertzen ditu.
- Eguneroko beharretan hizkuntza funtzioak erabiltzen ditu konparaketak eta deskribapenak egiteko.
- *Etorri* aditz trinkoa ezagutzen du eta zuzen erabiltzen du.
- *Nondik* deklinabide kasua zuzen erabiltzeko gai da.
- *Zerezko* egitura ezagutzen du.

## 5. UNITATEA: KALEAN GORA, KALEAN BEHERA

**TENPORALIZAZIOA:** urtarrilaren 8tik 30era.

### HELBURUAK

- Kalea eta hiriari buruzko lexikoa lantzea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntza funtzioak erabiltzea:
  - Informazioa eskatu.
  - Informazioa eman.
- *Jakin* aditz trinkoa lantzea.
- *Ten / t(z)en* egitura nominalizatua ulertzea eta zuzen erabiltzea.
- *Nor-Nori* aditz sistema ikastea.
- *Nori* deklinabide kasua ikastea eta erabiltzea.
- Zehar-galderak ezagutzea.
- *Zer ordutan?, Zer? eta Non?* Galderei erantzuten ikastea.
- Orduak eta denboraren prezesa ikastea.
- Ekintzak azaltzea eta egunaren sasoi desberdinak azaltzea.
- "Bide hezkuntza" zehar lerroa lantzea.

### EDUKIAK

#### KONTZEPTUZKOAK

Hiztegia	-Kalea eta hiria.
Hizkuntza funtzioak	-Informazioa eskatu. -Informazioa eman.
Gramatika	- <b>Egiturak:</b> -ten / -t(z)en jakin. Nori? - <b>Aditz-formak:</b> Jakin aditza orainaldian.
Zehar lerroak	-Bide hezkuntza
Irakurmena	-Komikia: Kanean gora, kanean behera. -Jai egitaraua: Auzuneko jaiak. -Narrazioa: "Kilkirraren kantua" -Kanta: "Ume eder bat"
Jolasa	-Baserriak eta deiturak.

#### PROZEDURAZKOAK

- Kirikiñoren ipuin moldatuaren irakurketa.
- Nor-Nori motako aditz egokia esaldietan jarri.
- Elkarrizketako hutsuneak bete, jakin aditza erabiliz.

- Igarkizunak irakurri eta erantzun zuzenak asmatu.
- Jaien egitaraua irakurri ondoren, galderei erantzun.
- Aditzen adberbioak eta aditzen denborak lotu.
- jaien txartela osatu.
- Asteko egunen arabera, emandako esaldiak ordenatu.
- Planoari begiratuz, galderei erantzun leku batzuei buruzko informazioa lortzeko.
- "Kilkirraren kantua" ipuina irakurri.
- Txistea irakurri eta klasean antzestu.
- Jose Maria iparragirre kantari ospetsuak eginiko abesti ezaguna, "Ume eder bat", irakurri eta abestu

#### JARRERAZKOAK

- Eguneroko harremanetan kaleak duen garrantzia baloratzea.
- Euskal kantuak estimatzea.
- Informazioa ematean edo eskatzean errespetuzko jarrera azaltzea.
- Hizkuntza funtzioak erabiltzeko beharra baloratzea gure eguneroko ekintza komunikatiboetan.
- Talde lanean kide bakoitzaren partehartzearen garrantziaz jabetzea.
- Eguneroko ariketen txukuntasuna.
- Arau morfosintaktikoak eta ortografikoak baloratzea.

#### EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Kalea eta hiriari buruzko lexikoa ezagutzen du.
- Eguneroko beharretan hizkuntza funtzioak erabiltzen ditu informazioa eskatzeko eta emateko.
- *Jakin* aditz trinkoa zuzen erabiltzen badaki.
- *Ten / t(z)en* egitura nominalizatua ulertzen dueta zuzen erabiltzen du.
- *Nor-Nori* aditz sistema ulertzen du.
- *Nori* deklinabide kasua zuzen erabiltzen du.
- Zehar-galderak ezagutzen ditu.
- *Zer ordutan?, Zer? eta Non?* Galderei erantzuten badaki.
- Orduak eta denboraren prezesuak adierazten badaki.
- Ekintzak eta egunaren sasoi desberdinak azaltzeko gai da.

#### 6. UNITATEA: IKERTZAILERIK ONENA

**TENPORALIZAZIOA:** otsailaren 2tik 20ra.

#### HELBURUAK

- Gure gustuak eta zaletasunekin lotutako hiztegia lantzea.
- Ogibideei buruzko lexikoa lantzea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntza funtzioak lantzea:
- Konparaketak egin.
- Nork bere nahiak adierazi.
- *Nahi izan* aditza lantzea.
- *DUT / DITUT* laguntzailea ulertzea eta zuzen erabiltzea.
- *Nork* deklinabide kasua ulertzea eta zuzen erabiltzea.
- ZALE atzizkia egoera komunikatiboetan erabiltzea.
- Konparaketak egiteko beharrezko egiturak eta baliabideak erabiltzea.

- "Giza eskubide eta bake hezkuntza" zehar lerroa lantzea.

## EDUKIAK

### KONTZEPTUZKOAK

Hiztegia	-Zaletasunak. -Ogibideak.
Hizkuntza funtzioak	-Konparaketak egin. -Nork bere nahiak adierazi.
Gramatika	<b>-Egiturak:</b> <i>Nork?</i> -zale atzizkia <b>-Aditz –formak:</b> Nahi izan / Ukan aditza. Egon aditza ( iraganeko hirugarren pertsona)
Zehar lerroak	-Giza-eskubide eta bake hezkuntza
Irakurmena	-Komikia: Ikertzaile onena. -Deskripzioa: Txutxi Txindoki. -Kanta: "Ikusi mendizaleak"
Jolasa	-Euskal hitzen bingoa.

### PROZEDURAZKOAK

- Komikiaren elkarrizketak irakurri ahoskera egokiaz eta zailak diren hitzak edo esamoldeak azpimarratzea.
- Komikia antzeztu.
- Irudietakoen artean, lanbide bat aukeratu, nahi izan aditza erabiliz.
- Agenda osatu, nork bere nahiak eta besteenak idatziz.
- Sei nahietatik, hiru aukeratu
- Txistea irakurri.
- Konparaketen bi egitura desberdinez ohartarazteko, animaliei buruzko esaldiak egin.
- Ipuina irakurtzea eta nahiak adierazteko egiturak azpimarratu.
- Ipuineko bi pertsonaien gutunak osotzea, laguntza gisa margotuta dauden koloreak kontuan hartuz.
- Gonbidapenetako esaldiak ordenatu.
- Txutxi Txindokiren deskripzioa irakurri.
- "Ikusi mendizaleak" kanta entzun eta abestu.
- Taldeka bingoan jolastu.

### JARRERAZKOAK

- Besteen gustuak baloratzea eta errespetuzko jarrera azaltzea.
- Jolasetan parte hartzearen garrantzia baloratzea, irabaztea baino.
- Zaletasunen gaiaren inguruko gogoeta egitea eta gaiarekiko ardura eta kezka adieraztea.
- Naturaren ezagupena kontuan hartzea, gure aisialdia betetzeko.
- Gaiarekin lotutako lexikoa eta egitura gramatikalak erabiltzeko ahalegina azaltzea.
- Euskaraz irakurketa errazak egiteko interesa piztea.

### EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Gure gustuak eta zaletasunekin lotutako hiztegia ezagutzen du.

- Ogibideei buruzko lexikoa birpasatu eta erabiltzen du.
- Eguneroko beharretan hizkuntza funtzioak erabiltzen ditu konparaketak egiteko eta nahiak adierazteko.
- *Nahi izan* aditza zuzen erabiltzen du.
- DUT / DITUT laguntzailea zuzen erabiltzen du.
- *Nork* deklinabide kasua ulertzen du eta zuzen erabiltzen du.
- ZALE atzizkia egoera komunikatiboetan zuzen erabiltzeko gai da.
- Konparaketak egiteko beharrezko egiturak eta baliabideak erabiltzen ditu.
- Beren lanak txukuntasunez aurkezten ditu.

## 7. UNITATEA: OIHANEKO ALTXORRA

**TENPORALIZAZIOA:** Otsailaren 23tik martxoaren 18ra.

### HELBURUAK

- Irakurmena eta ulermena lantzea.
- Bidaien inguruko lexikoa lantzea.
- Ibilgailuak adierazteko hiztegia ikastea.
- Herriko eta mendiko tokiak euskaraz esaten jakitea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntza funtzioak erabiltzea:
- Lekuak eta animaliak deskribatu.
- Ekintzak azaldu.
- Proposamenak eta konparaketak egin.
- *Ari izan* aditza lantzea.
- *Eduki* aditz trinkoa orainaldian lantzea.
- *-RIK /-IK* partitiboa ezagutzea eta zuzen erabiltzea.
- *Noren* deklinabide kasua ikastea.
- Mugagabea aurkeztea.
- Superlatiboa eta zenbaki ordinalak berrikustea.
- "Ingurunearen hezkuntza" eta "Bide hezkuntza" zehar lerroak lantzea.
- Ohiturazko kantuak ezagutzea.
- Jolasaren bitartez, helbururik behinenak berrikustea eta finkatzea.

### EDUKIAK

#### KONTZEPTUZKOAK

Hiztegia	-Bidaiak -Ibilgailuak -Animaliak -Mendiko eta herriko tokiak.
Hizkuntza funtzioak	-Lekuak eta animaliak deskribatu. -Ekintzak azaldu. -Proposamenak eta konparaketak egin.
Gramatika	- <b>Egiturak:</b> <i>-rik/ -ik</i> partitiboa norena? - <b>Aditz-formak:</b> <i>Eduki</i> aditza.
Zehar lerroak	Ingurunearen hezkuntza / Bide hezkuntza.
Irakurmena	-Komikia: Oihaneko altxorra. -Gida turistikoa: Ibilbide ekologikoak -Kanta: "Aldapeko"

### PROZEDURAZKOAK

- Komikiaren elkarrizketa irakurri, zailak diren hitzak azpimarratuz.
- Komikiak kontatzen duen istorioari amaiera asmatu.
- Ezezko galderei erantzunez, partitiboaren forma azaldu, idatziz zein ahoz.
- Garraiobiderik handiena pintatu eta esaldi konparatiboak osatu.
- Oker idatzita dauden esaldiak zuzendu.
- Gelan dauden gauzak deskribatu, *ukan* aditza erabiliz.
- Animalien datuak irakurri ondoren, bakoitzaren deskribapena egin.
- "Aldapeko" kanta kantatu.
- "Oihanean galdua" jolasean aritu.

### JARRERAZKOAK

- Gure ingurunearekiko errespetua eta ezagutzeko nahia azaltzea.
- Bidaiak egiteko garrantzia baloratzea, gure ezagupen maila aberasteko.
- Ikasgelan euskaraz mintzatzearen garrantziaz konturatzea.
- Besteen iritziak entzutea eta errespetatzea.
- Jolas-giroko ekintzetan parte hartzea.
- Testu idatzietan arau morfosintaktiko eta ortografikoak baloratzea.
- Eguneroko esamoldeak erabiltzea.
- Euskararen doinu bereziaz jabetzea.

### EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Irakurmena eta ulermena landu ditu.
- Bidaien inguruko lexikoa ezagutzen du.
- Ibilgailuak adierazteko hiztegia ulertzen du.
- Herriko eta mendiko tokiak euskaraz esaten badaki.
- Eguneroko beharretan hizkuntza funtzioak erabiltzen ditu lekuak eta animaliak deskribatzeko, ekintzak azaltzeko eta konparaketak egiteko.
- *Ari izan* aditza zuzen erabiltzen du.
- *Eduki* aditz trinkoa orainaldian landu du.
- *-RIK /-IK* partitiboa ezagutzen du eta zuzen erabiltzen du.
- *Noren* deklinabide kasua ikasi du.
- Mugagabea zer den badaki.
- Ohiturazko kantuak ezagutzeko ahalegina egiten du.
- Jolasean parte eraginkorra izan du.

## 8. UNITATEA: DENBORAN ZEHAR

**TENPORALIZAZIOA:** martxoaren 23tik apirilaren 30era.

### HELBURUAK

- Denborarekin lotutako lexikoa lantzea: urtaroak, hilabeteak, asteko egunak.
- Orduak ikastea.
- Denbora neurtzeko eta denboran zehar kokatzeko erabili behar diren elementuak eta sapideak ezagutzea.
- Lantokien eta ogibideen izenak birpasatzea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntza funtzioak erabiltzea:
- Lehenaldiko gertaerak kontatu.
- Denboraren prozesuak azaldu.

- Aditzak lehenaldian ikastea.
- Lehenaldiko gertaerak idatziz kontatzeko gai izatea, prozesuak azalduz.
- *Norena* deklinabide kasua lantzea.
- Baiezko eta ezezko esaldiak lantzea.
- *Zer ordu da? eta Zer ordutan?* egiturak ulertzea eta zuzen erabiltzea.
- "Hezkuntza zibikoa" zehar lerroa lantzea.

## EDUKIAK

### KONTZEPTUZKOAK

Hiztegia	-Denbora: asteko egunak, hilabeteak, urtaroak. -Lantokiak eta langileen izenak.
Hizkuntz funtzioak	-Lehenaldiko gertaerak kontatu. -Prozesuak azaldu.
Gramatika	<b>-Egiturak:</b> Norena? / Norenak? Zer ordu da? /Zer ordutan? <b>-Aditz-formak:</b> Aditza lehenaldian (joan naiz, egin dut...)
Zehar lerroak	Hezkuntza zibikoa
Irakurmena	-Komikia: Denboran zehar -Egunerokoa: Anaren astea. -Ipuina: Elurra kokoloen herrian. -Kanta: "Udaberria datorrenean"
Jolasa	-Hilabeteen almanakea.

### PROZEDURAZKOAK

- Komikiari buruzko egiten diren galderari erantzutea.
- Komikian prozesuak denboran kokatzeko erabiltzen diren hitzak azpimarratu.
- Mapari begiratu ondoren, erlojuetan agertzen diren orduak idatzi.
- Bidai errazak asmatu eta idatzi.
- Emandako ekintzei ordua ipini.
- Zoroskiren agenda zatiari begiratu eta hutsuneak bete.
- Lantokiak eta langileak lotu.
- Agenda txiki bat bete, asteburuan egingo dutenarekin.
- Lehenaldiko gertaerak idatziz kontatu, emandako eskemari begiratu.
- Definizioen arabera, gurutzegrama osatu.
- Ipuina arretaz irakurri.
- "Udaberria datorrenean" kanta ikasi eta kantatu.
- Almanake bat eraiki, emandako marrazkiak dagokien lekuan jarri.

### JARRERAZKOAK

- Denboraren atalak ezagutzeko nahia piztea.
- Gure denbora eta aisialdia ondo banatzeko beharra baloratzea.
- Iraganeko gertaerak gogora ekartzeko ahaleginak egitea, beharrezko esamoldeak eta baliabideak erabiliz.
- Ipuinaren garrantzia estimatzea.
- Hizkuntza maila garatzeko interesa, lexikoa eta egitura berriak barneratuz.
- Komunikabide funtzioak ikasteko ahalegina sortzea.
- Talde lanean, partaide bakoitzaren parte hartzea bultzatzea.

## EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Denborarekin lotutako lexikoa ezagutzen du.
- Orduak ezagutzen ditu eta eguneroko beharretan euskeraz esaten ditu.
- Denbora neurtzeko eta denboran zehar kokatzeko erabili behar diren elementuak eta esapideak ezagutzen ditu.
- Lantokien eta ogibideen izenak ezagutzen ditu.
- Eguneroko beharretan hizkuntza funtzioak erabiltzen ditu lehenaldiko gertaerak kontatzeko eta denboraren prozesuak azaltzeko.
- Aditzak lehenaldian ikastea ezagutzen ditu.
- Lehenaldiko gertaerak idatziz kontatzeko gai da, prozesuak azalduz.
- *Norena* deklinabide kasua ulertu du eta zuzen erabiltzen du.
- Baiezko eta ezezko esaldiak zuzen erabiltzen ditu.
- *Zer ordu da? eta Zer ordutan?* egiturak bereganatu ditu.
- Liburuko hariketa guztiak burutu ditu.
- Kantatzeko ahalegina egin du.

## 9. UNITATEA: Hegaz berriro

**TENPORALIZAZIOA:** maiatzaren 4tik 22ra.

### HELBURUAK

- Testu errazak ulertzea eta horiei buruzko galderei erantzuteko gai izatea.
- Animaliei buruzko lexikoa eta esamoldeak lantzea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntza funtzioak erabiltzea:
  - Posibilitateak adierazi.
  - Eguneroko eta oraingo gertaerak kontatu.
- Aditzak orainaldian berrikustea.
- *Ahal izan* eta *ezin izan* aditzak ikastea.
- *Behar izan* aditza ondo erabiltzen jakitea.
- *Zein... tan?* Galderari erantzuten jakitea.
- Harridurazko esaldi mota bat ezagutzera ematea eta testuinguru erraz batean erabiltzea.
- "Ingurugiroaren hezkuntza" zehar lerroa lantzea.
- Euskal kanta ezagutzea.
- Esaera zaharrak ezagutzea eta beren esanahia ulertzea.

### EDUKIAK

#### KONTZEPTUZKOAK

Hiztegia	-Animaliak
Hizkuntza funtzioak	-Posibilitateak adierazi. -Eguneroko eta oraingo gertaerak kontatu.
Gramatika	- <b>Egiturak:</b> Zein...tan? galdera. - <b>Aditz-formak:</b> aditzak orainaldian Ahal izan / ezin izan / behar izan
Zehar lerroak	-Ingurunearen hezkuntza
Irakurmena	-Komikia: Hegaz berriro -Deskribapena: Pottoka -Kanta: "Xoxoak galdu du mokoak".
Jolasa	-Animalia gezurtiak.

## PROZEDURAZKOAK

- Komikia irakurtzea eta esamolde berriak ikastea.
- Komikia antzestu.
- Irudietako animaliek egin ahal dutena eta egin ezin dutena idatzi.
- Hieroglifikoa asmatzea.
- Seinaleek debekatzen duten arabera, galderei erantzun.
- Testua irakurri ondoren, laukiko datuak bete.
- Potoloren txistearen antzezpena egin.
- Abereen propagandazko iragarkiak osatu.
- Gezien bidez, egoerak eta aditzak lotu.
- Emandako harridurekin esaldietako hutsuneak bete.
- Igarkizunak asmatu.
- Xakeko zaldiaren mugimenduak eginez, esaera zaharra osatu.
- Kanta ikasi eta klasean kantatu.
- Denborapasaren okerrak aurkitu eta esaldiak osatu.

## JARRERAZKOAK

- Animaliekiko errespetuzko jarrera azaltzea.
- Ingurunearen aldeko jarrera baikorra bultzatzea.
- Jolasetan parte hartzearen garrantzia baloratzea, irabaztea baino.
- Jolasen arauak errespetatzeko beharraz kontzientziatzea.
- Talde lanean kide bakoitzaren partehartzearen garrantziaz ohartaraztea.
- Testu idatzietan, arau morfosintaktikoak eta ortografikoak baloratzea.

## EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Testu errazak ulertzen ditu eta horiei buruzko galderei erantzuteko gai da.
- Animaliei buruzko lexikoa eta esamoldeak ezagutzen ditu.
- Eguneroko beharretan hizkuntza funtzioak erabiltzen ditu posibilitateak adierazteko eta egunerokoeta oraingo gertaerak kontatzeko.
- Aditzak orainaldian zuzen erabiltzen du.
- *Ahal izan* , *ezin izan* eta *behar izan* aditzak bereizten ditu eta zuzen erabiltzen ditu.
- *Zein... tan?* Galderari erantzuten badaki.
- Esaera zaharrak ezagutzen ditu eta beren esanahia ulertzen ditu.

## 10. UNITATEA: ZERUTIK LURRERA

**TENPORALIZAZIOA:** maiatzaren 25etik ekainaren 12ra.

### HELBURUAK

- Etxea eta etxetresnei buruzko lexikoa lantzea.
- Eguneroko beharretan hurrengo hizkuntza funtzioak erabiltzea:
  - Geroaldiko gertaerak kontatu.
  - Aginduak eman.
  - Usteak adierazi.
- Usteak adierateko beharrezkoezamoldeak ikastea.
- Aditzak geroaldian ikastea.
- -GAILU atzizkia lantzea eta egoera komunikatiboetan erabiltzea.
- Aginduak emateko beharrezko egitura gramatikalak ezagutzea.
- Deskribapenak nola egiten diren berrikustea.
- *Zerezkoa?* Egitura berrikustea.

- Ikasturte honetako hizkuntza untzioak eta gramatika-egiturak birpasatu, jolasaren bidez.

## EDUKIAK

### KONTZEPTUZKOAK

Hiztegia	-Etxea eta etxetresnak.
Hizkuntz funtzioak	-Geroaldiko gertaerak kontatu. -Aginduak eman. -Usteak adierazi.
Gramatika	- <b>Egiturak:</b> -gailu atzizkia. - <b>Aditz-formak:</b> Aditzak geroaldian.
Zehar lerroak	-Bide hezkuntza / Ingurugiro hezkuntza.
Irakurmena	-Komikia: Zerutik lurrera. -Eskolako egunkaria: Bai mundu berria! -Kanta: "Gazte gaztetatikan"
Jolasa	-Astrolapikoa

### PROZEDURAZKOAK

- Komikiaren elkarrizketak irakurri.
- Gezien bidez, geroaldiko esaldiak osatu.
- "Gazte gaztetatikan" kantua ikasi eta elkarrekin abestu.
- Geroaldia erabiliz, aginduak eman.
- Ametsaren irudi bakoitza dagokion aginduarekin lotu.
- Etxeko irudiari begiratu, etxeko gelen izenak idatzi.
- Etorkizuneko etxeari begiratu, esaldiak asmatu geroaldia erabiliz.
- Agendan agertzen den ekintza bakoitzaren alboan bai ala ez markatu.
- "Astrolapikoa" jolasean aritu

## JARRERAZKOAK

- Etxean egindako lanarekiko errespetuzko jarrera azaltzea.
- Talde lanean kide bakoitzaren partehartzearen garrantziaz jabetzea.
- Komunikazio ekintzen helburuari buruz jabetzea.
- Eginkizun zehatzak egin ahal izateko, ahozko hizkuntzaren balorazioa.
- Besteen iritzien aurrean jarrera irekia eta begirunezkoa izatea.
- Aurkezten diren lanetan txukuntasuna baloratzea.

## EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

- Etxea eta etxetresnei buruzko lexikoa ezagutzen du.
- Eguneroko beharretan hizkuntza funtzioak erabiltzen ditu.
- Usteak adierateko beharrezkoezamoldeak ikasieta erabiltzen ditu.
- Aditzak geroaldian erabiltzen badaki.
- -GAILU atzizkia ezagutzen du eta egoera komunikatiboetan erabiltzen du.
- Aginduak emateko beharrezko egitura gramatikalak bereganatu ditu.
- Deskribapenak nola egiten diren badaki.
- *Zerezkoa?* egitura zuzen erabiltzen du.
- Jolasean parte eraginkorra izan du.